

IRAGARKIA

63. ALDIZKARIA - 2021eko martxoaren 18a

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

7E/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita txikizkako merkataritza enpresen lehiakortasuna eta digitalizazioa hobetzeko eta merkataritzan ekintzailtza sustatzeko dirulaguntzen deialdia. DDBN identifikazioa: 550723.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak funtsezkotzat jo du, plan sektorial berria prestatu bitartean, aurrera jarraitzea Nafarroako Hurbileko Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko Planean (2018-2020) zehaztutako neurriekin, zehazki, helburu dutenak merkataritzaren lehiakortasunaren eta berrikuntzaren ahalmena hobetzea eta txikizkako merkataritzaren sektoreko enpresa txiki eta ertainen eraldaketa digitala lortzea.

Aurreikusten da azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzeko behar diren inbertsioei laguntzea, bai eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak txertatzea bultzatzen dutenei ere, kudeaketa eredu berriak ezartzeko, oinarri dutenak enpresa horien garapen teknologikoa, eta, orobat, merkataritza arloko ekintzailtza sustatzen duten bestelako inbertsioei.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak norgehiagokako araubideari jarraikiz emanen dira, eta, hortaz, kasuan kasuko baremoaren aplikazioak zehaztuko du dirulaguntzak emateko hurrenkera.

Adierazitakoarekin bat, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32. artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Dirulaguntzen deialdi bat onestea txikizkako merkataritza enpresen lehiakortasuna eta digitalizazioa hobetzeko eta merkataritzan ekintzailtza sustatzeko.
2. Deialdiaren oinarri arautzaileak onestea. Ebazpen honen eranskinean jaso dira.
3. 995.000 euroko gastua baimentzea dirulaguntzen deialdi honen ondoriozko konpromisoak betetzeko; Nafarroako 2021eko Aurrekontu Orokorretako partida hauen kargura finantzatuko da:

AURREKONTUKO PARTIDA	ZENBATEKOA
830001-83130-7701-431402: Merkataritzako enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzak. Lehiakortasuna hobetzea eta sorkuntza (PICMP.L31-33-34).	845.000
830001-83130-7709-431402: Suspertu Plana. Merkataritzako enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzak saltegi txikiak digitalizatzeko	150.000

4. Ebazpen hau eta eranskina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5. Deialdiaren honen kontra, gora jotzeko errekurtoa aurkezten ahalko zaio Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an.–Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusia, Maitena Ezkutari Artieda.

ERANSKINA

TXIKIZKAKO MERKATARITZA ENPRESEN LEHIAKORTASUNA ETA DIGITALIZAZIOA HOBETZEKO ETA MERKATARITZAN EKINTZAILTZA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN 2021EKO DEIALDIA. OINARRI ARAUTZAILEAK

1. oinarria. Xedea.

Oinarri arautzaile hauen xedea da txikizkako merkataritzan ari diren enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzen araubidea zehaztea eta enpresa berrien sorrera bultzatzea sektore horretan.

Deialdi honen xedea da merkataritzaren enpresa-ehuna sendotu eta finkatzea Nafarroako herrietako hiri-bilbean dauden saltokiak modernizatuz eta Covid-19aren oraingo osasun krisia dela-eta osasun agintariak eskatzen dituzten neurrietara egokituz.

Gainera, asmoa da sektoreko enpresa txiki eta ertainen kudeaketa-sistemak hobetzea, informazio eta komunikaziorako tresna teknologiko berriak aplikatuz, bide ematen dutenak kontsumo eredu berrietara egokitzeko eta garapen teknologikoa lortzeko.

Bukatzeko, sektoreko enpresen sorrera sustatu nahi da, txikizkako merkataritzaren enpresa proiektu berriak ezarriz, eta, horrela, sektorean enpleguaren sorrera bultzatu.

2. oinarria. Aurrekontuko zuzkidura.

1. 995.000 euroko kreditua baimendu da deialdi honen ondoriozko konpromisoerri erantzuteko, honela zehaztuta, diruz laguntzen ahal diren proiektu moten eta aurrekontuko partidaren arabera:

PROIEKTU MOTAK	ZENBATEKOA	AURREKONTUKO PARTIDA
A) Modernizazioa eta eraberritzea	525.000	830001-83130-7701-431402: Merkataritzako enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzak. Lehiakortasuna hobetzea eta sorkuntza (PICMP.L31-33-34)
B) Berariazkoak	80.000	
C) Merkataritzako ekintzailtza	200.000	
D) Merkataritza ez-egonkorra	40.000	
E) Garapen teknologikoa	150.000	830001-83130-7709-431402: Suspertu Plana. Merkataritzako enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzak saltegi txikiak digitalizatzeko
GUZTIRA	995.000	

Modernizazioa eta eraberritzea ataleko proiektuei kasu egiteko kreditua honela bereizten da:

Ver tabla completaVer tabla completa

A) MODERNIZATZEKO ETA ERABERRITZEKO PROIEKTUAK (MEP)	ZENBATEKOA
Iruña	210.000
Gainerako toki entitateak	315.000
GUZTIRA	525.000

2. Proiektu mota horietarako eskaerei erantzun ondoren kreditu erabilgarriak badago, beste proiektuen mota batzuen eskaerarako erabiliko da, honako honi jarraikiz:

–A motako gerakinak E, C, B eta D motetako eskaerei heltzeko erabiliko dira, hurrenkera horri jarraikiz.

–B motako gerakinak E, C, A (gainerako toki entitateak, Iruña) eta D motetako eskaerei heltzeko erabiliko dira, hurrenkera horri jarraikiz.

–C motako gerakinak E, A (gainerako toki entitateak, Iruña), B eta D motetako eskaerei heltzeko erabiliko dira, hurrenkera horri jarraikiz.

–D motako gerakinak E, C, A (gainerako toki entitateak, Iruña) eta B motetako eskaerei heltzeko erabiliko dira, hurrenkera horri jarraikiz.

–E motako gerakinak C, A (gainerako toki entitateak, Iruña), B eta D motetako eskaerei heltzeko erabiliko dira, hurrenkera horri jarraikiz.

3. oinarria. Inbertsioak gauzatzeko epea.

Inbertsioak 2020ko urriaren 1etik 2021eko irailaren 30era bitarte gauzatu beharko dira, egun horiek barne. Horren ondorioetarako, inbertsioak egin direla ulertuko da aldi hori egin eta fakturatu denean, nahiz eta inbertsioen ordainketak 2021eko urriaren 13ra arte egiten ahal diren, egun hori barne.

4. oinarria. Enpresa onuradunak.

1. Betebehar orokor hauek betetzen dituzten enpresa txiki eta ertainek jasotzen ahalko dituzte laguntzak:

1.1. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan entitate onuraduna izateko ezarritako debeku egoeretako batean.

Dirulaguntza eskatzeak berekin dakar baimena ematea organo emaileak zuzenean eskura ditzan eskatzaileak tributu betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duten ziurtagiri telematikoak. Eskabidean interesdunak horri berariaz uko egiten badio, berak aurkeztu beharko ditu aipatutako betebeharretan egunean dagoela adierazten duten ziurtagiriak.

1.2. Inolako administrazio zehapen irmorik edo kondena epai irmorik betetzen ez egotea sexu edo genero diskriminaziotzat hartutako lan praktikak egiteagatik edo onartzeagatik, eta ez egotea arrazoi horiek direla-eta ezarritako epai edo zehapen bat betetzeko zain.

1.3. Eskatzaileek pertsona fisikoen edo juridikoen elkarte bat eratzen dutenean, edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 8.3 artikuluko kasuetako bat, ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar dute, behar adinako ahalmena duena onuradun gisa dagozkion betebeharrak konplitzeko.

Kasu horietan, berariaz adieraziko dira dirulaguntzaren eskabidean zer konpromiso hartzen dituen bere gain batasuneko kide bakoitzak. Halaber, laguntza ematen duen ebazpenean adieraziko da kide bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa. Kideok ere onuraduntzat joko dira.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira eskatzaileak Nafarroako Foru Ogasuneko entitateen erroldan duen inskripzio agirian ageri diren partaidetza portzentajeak, non eskatzaileak ez duen bestelako erantzukizunpeko adierazpenik egiten dirulaguntza eskatzeko inprimakian.

1.4. Betebehar orokorrak betetzen direla frogatzeko, eskabide orrian dagoen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da.

2. Jarduera ekonomikoak berariazko baldintza hauek bete behar ditu:

2.1. Negozioaren jarduera nagusia apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2009) hurrengo jardueretako bat izatea:

–47.11 eta 47.79 taldeen arteko jarduerak, biak barne.

–45.32 taldeko jarduerak (ordezko piezak eta hornigai berriak badira bakarrik).

–47.81 eta 47.89 taldeen arteko jarduerak, eta 47.99 taldekoak, merkataritza ez-egonkorrari buruzko proiektuetarako soilik.

2.2. Kanpoan geldituko dira 47.30 (automobilgintzarako erregaia) taldeko saltegi espezializatueta egiten diren txikizkako merkataritza jarduerak, eta, baimen edo kontzesio administratibo berezia behar dutenez, 47.26 (tabako produktuak) eta 47.73 (farmaziako produktuak) taldeetakoak.

2.3. Horretarako, enpresa alta emanda egon beharko da ekonomia-jardueren gaineko zergan (aurrerantzean EJZ), Nafarroako udalerriren batean, diruz lagungarriak diren ekonomia jarduerekin zuzeneko lotura duen txikizkako merkataritzari buruzko epigraferen batean. Nolanahi ere, negozioaren jardura nagusia zein den ondorioztatzeko, Ekonomia-Jardueren Sailkapen Nazionala hartuko da kontuan.

EJZri buruzko informazioa web esteka honetan egonen da:

<https://hacienda.navarra.es/RegistroIAE.Web/Registro.aspx>

Merkataritzako ekintzailtza proiektuen kasuan, eskatzailea ez badago alta emanda EJZn lehenago aipatutako webgunetik lortutako informazioari jarraikiz, enpresa planean emandako informazioa hartuko da kontuan, enpresaren ekonomia-jardura Ekonomia-jardueren Sailkapen Nazionalean (2009) sailkatu ahal izateko. Kasu horretan, enpresa eskatzailea deialdian aurreikusitako dirulaguntzen onuradun bihurtzen bada, 2021eko abenduaren 31rako aurkeztu beharko du, beranduenik, EJZn alta hartu izanaren aitortpena.

2.4. Txikizkako merkataritzarekin batera beste jardueraren bat egiten bada saltegian, frogatu beharko da saltegian egiten den jardura nagusia txikizkako merkataritzakoa dela, eta, horretarako, jardura ekonomiko bakoitzaren negozio edo salmenten zifren frogagiriak aurkeztu beharko dira, edo hori frogatzeko beste edozein dokumentazio.

2.5. Merkataritza ez-egonkorraren jarduerak berriazko baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Modalitate hauek soilik onartzen dira: aldizkakotasun zehatzeko merkatu txikietan saltzea, alde zuzenetik ezarritako tokietan, eta merkataritza ibiltaria denda-ibilgailuetan. Ez da onartuko azoketan edo bestetan egiten den salmenta.

b) Merkataritza ibiltaria egiten denean denda-ibilgailuetan, merkataritza ibilbideak Nafarroako toki entitateetan integratuko dira lehentasunez, non enpresaren salmenten %80 egiten baitira gutxienez.

c) Merkatu txikietako salmentaren kasuan, enpresak egiten dituenen %80 gutxienez Nafarroako toki entitateetan egin behar dira.

d) Merkataritza jardura hilean lau egunetan egin behar da gutxienez.

e) Enpresaren jardura nagusiak salmenta ibiltaria izan behar du. Ez da halakotzat joko produktoreen salmenta zuzena, ezta geroago salduko diren produktuen ekoizpena edo elaborazioa ere.

f) Merkataritza ibiltariaren jarduerarako erabiltzen den ibilgailuak egokituta egon behar du berriaz horretarako.

3. Enpresa txiki eta ertain eskatzaileek berriazko baldintza hauek bete behar dituzte, proiektu motaren arabera.

3.1. Saltegiak modernizatu eta eraberritzeko proiektuak (MEP).

a) 2020ko urriaren 1a baino lehenagotik eta dirulaguntzaren eskaera aurkezten den egunera arte aritu izana jarraian eta zuzenean txikizkako merkataritza-jarduera batean Nafarroan (ondorio horietarako, EJZn alta emandako data hartuko da kontuan).

Enpresak bere izena edo forma juridikoa aldatu badu, kontuan hartuko da zein egunetan eman zitzaion alta jatorrizko enpresari ekonomia-jardueren gaineko zergaren ondorioetarako. Aldatu dena enpresaren osaera baldin bada, berriz, baldintza hori betetzen dela ondorioztatuko da baldin eta enpresaren hasierako kideek edo horietako batek segitzen badute kapital sozialaren edo jabariaren erdiaren edo gehiagoren jabe izaten, eta argi eta garbi gelditzen bada txikizkako merkataritza-jarduera berari eusten zaiola.

b) ETEa izatea, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 1. eranskinean ezarritakoaren arabera. Erregelamendu horren bidez, zenbait laguntza-kategoria barne merkatuarekin bateragarritzat jo ziren, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz. Aurrerantzean, erregelamendu horri jarraituko zaio ETEei buruzko edozein aipamenetarako.

3.2. Berriazko proiektuak (BP).

Mikroenpresa edo enpresa txikia izatea, Covid-19arengatik inbertsioen proiektuetarako izan ezik, hor ETEak hartuko baitira kontuan.

3.3. Merkataritzako ekintzailtza proiektuak (MEP).

a) Mikroenpresa edo enpresa txikia izatea.

b) Enpresa berri bat eratzea, Nafarroan kokatua eta helbide fiskala ere bertan duena, txikizkako merkataritzako enpresa jarduera berri bati ekiteko saltegi batean.

c) Laguntzatik kanpo daude lehenagoko enpresa baten izenaren edo forma juridikoaren aldaketa baten, kapital handitze baten edo egiturazko aldaketa baten ondoriozko enpresak.

d) EJZn alta emateko egunak 2020ko urriaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartekoak dira, biak barne.

e) Negozio berriak aldeko bideragarritasun plana edo enpresa plana izan beharko du.

3.4. Merkataritza ez-egonkorra (MEEP):

a) Mikroenpresa edo enpresa txikia izatea.

b) Nafarroako udalerrri batean alta emana egotea EJZn, merkataritza-ez egonkorrari dagokion epigraferen batean, 2020ko urriaren 1a baino lehenagotik.

3.5. Garapen teknologikoko proiektuak (GTP).

a) Enpresa txikia edo ertaina izatea.

5. oinarria. Jarduketa diruz lagungarriak.

1. Diruz lagungarriak diren proiektu motak. Proiektu hauek dira diruz lagungarriak:

1.1. Saltegiak modernizatzea eta eraberritzea (MEP).

Diruz lagungarriak dira, alde batetik, dauden saltegiak modernizatu, eraberritu edo zaharberritzeko beharrezkoak diren inbertsioak, eta bestetik, lekuz aldatzen diren saltegiak kokatzeko lokalak egokitu eta hornitzeko beharrezkoak direnak, baita saltegi berriak kokatzekoak ere, horrek ekartzen badu enpresak duen saltegi kopurua handitzea.

1.2. Berariazkoak (BP).

Proiektu hauek dira diruz lagungarriak:

a) Enpresa integraziorako proiektuetan parte-hartzea.

Elkarte gisa eratzeko edo enpresa-egituran integrazteko behar diren inbertsioak diruz lagungarriak dira, baita egitura horien irudi komun edo korporatiboari egokitzeko inbertsioak ere, honako hauek egiten dituztenak: erosketa-zentraletako enpresek edo enpresa-integraziorako bestelako formuletan sartzen diren enpresek.

b) Saltegien eskualdaketa.

Diruz lagungarriak dira 2020ko urriaren 1ean funtzionamenduan zegoen txikizkako merkataritzako negozio bat erosteko egindako inbertsioak, betiere bermatzen bada jarraipena emanen zaiola jarduera ekonomiko horri.

Ulertuko da badagoela jarraipena bi hilabete baino gehiago iragaten ez badira enpresa eskualdatzaileak EJZn baja hartu zuenetik eta negozioa erosten duen enpresak zerga horretako talde berean alta hartzen duen arte.

c) Landa-merkataritzarako negozio-eredua garatzeko programak.

Diruz lagungarriak dira 2018. eta 2019. urteetan landa-merkataritza eraldatzeko programan parte hartu duten ETEek egindako inbertsioak, betiere bete baldin badituzte hura ezartzeko jarduketa guztiak eta aurreikusitako programa osoa. Programa hori Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa SLk (CEIN SL) kudeatu du.

d) Merkataritza-diagnostikoen programa.

Inbertsio hauek dira diruz lagungarriak: batetik, 2018an eta 2019an Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialak egindako merkataritzako diagnostiko programan parte hartu zuten saltegietan identifikatu eta gomendatu ziren inbertsioak, eta bestetik, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak enpresen merkataritza arloko diagnostiko, plan eta azterketak egiteko ematen dituen dirulaguntzen 2019ko deialdiaren babesean, merkataritza diagnostikoa egin zitzaizen saltokietan identifikatu eta gomendatu ziren inbertsioak.

e) Inbertsioak Covid-19arengatik.

Diruz lagungarriak dira saltegia egokitzeko inbertsioak eta ekipamendua erostekoak, beharrezkoak direnak jarduera egokitzeko osasun agintaritzen neurrietara edo gomendioetara, koronabirusaren osasun krisia dela eta, hala nola babes itxiturak, txanden gailuak, barrera eramangarriak, desinfekzio ekiptoak, pertsonak zenbatzeko sistemak, edukierak kontrolatzekoak, etab.

Kasu guztietan, inbertsio izaera izan behar dute, ez baita dirulaguntzaren xedeko izanzen material suntsikorren erosketa.

1.3. Merkataritzako ekintzailtza (MEP).

Diruz lagungarriak dira txikizkako merkataritzako enpresa proiektu berriak saltegitan ezartzen dituzten enpresa berriek egindako inbertsioak.

1.4. Merkataritza ez-egonkorra (MEEP):

Diruz lagungarriak dira denda-ibilgailuan merkataritza ez-egonkorra egiteko ibilgailua erosteko edo egokitzeko inbertsioak, baita merkatu txikietan merkataritza ez-egonkorra egiteko berariazko ekipamendua erostekoak ere.

1.5. Garapen teknologikoa (GTP).

Diruz lagungarriak dira ETEen eraldaketa digitalerako behar diren inbertsioak, ekipamendu digitala ezartzekoak, baita tresna eta garapen teknologikoak ere, aukera ematen dutenak negozioaren kudeaketa hobetzeko eta kontsumitzaileen erosteko ohituretara egokitzeko.

2. Inbertsio diruz lagungarriak.

2.1. Saltegiak modernizatu eta eraberritzeko proiektuak (MEP) eta merkataritzako ekintzailtza proiektuak.

Honako jarduketak hauek dira inbertsio diruz lagungarriak:

2.1.1) Saltegietak instalazioak, lokalak eta irudia eraberritzeko, egokitzeko eta berritzeko obrak. Honako jarduketak hauek onartuko dira: merkataritzako lokaletan egindako eraberritze lanak, kanpoko eta barneko errotulazioak, erakusleihoetan egindako erreformak, irisgarritasun arloko hobekuntzak, oztopo arkitektonikoak kentzea, aire girotuko, lapurreten aurkako edo segurtasun sistemak instalatzea, wifi eremuak instalatzea, energia-hobekuntzarako jarduketak, argiteriako instalazioak efizientzia energetiko handiko teknologiak erabiltzen dituzten beste batzuekin ordeztzekoak, eta antzeko beste jarduketak batzuk.

2.1.2) Saltegietak merkataritzako ekipamendua:

Aktibo finko berriak erostea onartuko da, hala nola:

–Produktuak erakusteko eta biltegitzeko altzariak.

–Ekipamendu berariazkoa eta inbertsioak merkataritza jarduerarako beharrezkoak diren beste aktibo finko batzuetan.

2.1.3) Aurreko jarduketekin zuzenean lotutako zerbitzu tekniko profesionalen ezinbesteko ordainsariak; zehazki, proiektua prestatzeko gastuak, obra zuzendaritzarenak eta dekoratzaile edo instalatzaileen proiektuenak baizik ez dira onartuko.

Kontzeptu horiengatik 2.1.1 edo 2.1.2 ataletan adierazitako inbertsio diruz lagungarrien aurrekontuaren %20 onartuko da gehienez. Ehuneko hori bera izanen da kontzeptu horiengatik dirulaguntza ordaintzeko orduan aplikatuko dena.

2.2. Berariazko proiektuak (BP): Diruz lagungarriak dira lehen deskribatutako jarduketak, eta, horiez gain, frankizietan, erosketa-zentraletan eta enpresa integraziorako beste formula batzuetan sartzeko kanonak ere.

Bigarren eskuko aktibo finkoetan eta ondasun erabilietan egindako inbertsioak saltegiak eskualdatzeko proiektuetan soilik izanen dira diruz lagungarriak.

2.3. Merkataritza ez-egonkorreko proiektuak (MEEP): Honako jarduketa hauek dira inbertsio diruz lagungarriak:

2.3.1) Ibilgailuak erostea edo egokitzea garraio eta salmentaren jarduerara, ibilgailua salmenta ibiltarirako baliabide nagusia denean.

Ibilgailuak ezin dira turismo gisa sailkaturik egon, eta ibilgailu mistoak diruz lagungarriak izateko, egokituta egon behar dute salgaien garraiorako.

Ibilgailuek, orobat, ibilgailu garbi gisa egon behar dute etiketaturik beren efizientzia energetikoaren arabera (bereizgarri hauek: 0 isurketa, Eco, C eta B).

2.3.2) Berariazko ekipamendua erostea, hala nola:

–Olanak, karpak, instalazio metalikoak edo egitura eramangarriak saltokirako.

–Produktuak erakusteko merkataritzako ekipamendua edo altzariak, balantza elektronikoak eta elektrizitate sorgailuak.

2.4. Garapen teknologikoko proiektuak (GTP).

Diruz lagungarria izanen da kudeaketa edo merkaturatze sistemetan hobekuntzak egitea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) sartuz, baita txertatutako tresna teknologikoak abian jartzeko eta erabiltzeko behar den prestakuntza ere; zehazki, jarduketa hauek:

2.4.1) Merkataritza elektronikoa abian jartzea (e-commerce).

Diruz lagungarria da funtzionaltasun hori duten webguneak sortzea, garatzea eta ezartzea, edo lehendik sortutako webguneak egokitzea on line salmentak sartzeko, baldintza hauek betetzen badira:

–Sistema estandarretan garatzea eta gailu mugikorretara egokitua egotea.

–B2C merkataritza elektronikoen plataformek aukera eman beharko dute enpresa eskatzaileak merkaturatzen dituen produktu edo zerbitzuak kontratatzeko, eta online ordainketen transakzioak denbora errealean egiteko.

–Pribatutasun politikaren orrialdea izatea, indarreko araudiarekin bat.

–https datuen transferentziarako protokoloa izatea.

–Sinkronizaturik egotea saltegiaren kudeaketa sistemarekin.

–Ordainketa pasabidea izatea.

2.4.2) Honako hauek ezartzea: kudeaketa tresnak, ETEaren edozein kudeaketa arloekin lotura duten sistema integratuak, programa informatikoak eta beharrezko softwarea.

2.4.3) Gailu mugikorretarako aplikazioak garatzea bezeroak erakartzeko asmoz (sustapen sistemak, marka nabarmentzea, errealitate areagotua, geo-erreferentziako sistemak...).

2.4.4) Ekipamendu digitala: salmenta-puntuko terminalak (SPT) eta salmenta prozesua kudeatzeko beharrezkoa den bestelako ekipamendu informatikoa, tikteten inprimagailuak, prezioak modu elektronikoa etiketatzeko sistemak, barra-kodeen irakurgailuak eta balantza digitalak.

3. Honako kontzeptu hauek ez dira diruz lagungarriak:

- a) Dirulaguntza eskatzen duen enpresak berak egindako lanak, ez eta enpresa eskatzailea bera denean aktiboen saltzailea edo jardueraren emailea, edo autofakturazioa ekar dezakeen antzeko kasuren bat gertatzen denean ere.
- b) Bigarren eskuko aktibo finko ukigarriak eta ondasun erabiliak. Halere, kontzeptu hau diruz lagungarria izanen da, soilik, saltegi eskualdaketen kasuan.
- c) Negozioen eskualdaketen ordaindutako gastuak.
- d) Saltegia eta lurak erosteko inbertsioak.
- e) Garraiorako elementuak, salbu aurreikusita dagoena merkataritza ez-egonkorraren proiektuetarako.
- f) Edozein eratako zergak, lizentziak, baimenak edo antzeko gastuak.
- g) Erakusketetarako eta probako altzari eta artikuluak, gero salgai jartzen ahal direnak, eta aldi baterako erakusketen instalazioa.
- h) Saltegien eta material suntsigarrien alokairu gastuak.
- i) Leasing bidezko finantzaketaren bitartez eskuratutako aktiboak.
- j) Ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, tabletak, telefono mugikorak. Salbuespena da salmentak kobratzeko behar diren ordenagailuak.
- k) Oro har, merkataritzan aritzeko guztiz ezinbestekoak ez diren aktiboak edo ekipamenduak.

4. Inbertsio diruz lagungarriek bete beharreko baldintzak.

4.1. Inbertsio diruz lagungarriek Nafarroan kokatuta egon behar dute, hiri-bilbean integratuta dauden txikizkako saltegietan. Ondorio horietarako, kontuan hartuko da lokala hiri-lurzoruan edo urbanizagarrian egotea, betiere lurzati horrek edo ondokoek, hau da, mugakideek, nagusiki bizitegiarako erabilera badute, eta baztertuko dira industrialdeetan, merkataritza guneetan eta zerbitzu poligonoetan kokatuta daudenak, baita mugaz haraindiko eremuetan daudenak ere.

4.2. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren salbuespena:

4.2.1. Txikizkako merkatariek saltegi iraunkor batetik kanpo egindako inbertsioak, lotura dutenak merkataritza ez-egonkorraren proiektuekin.

4.2.2. Landa merkataritzarako negozio eredua garatzeko asmoz CEIN SLk kudeatutako programan parte hartu duten ETEek egindako inbertsioak.

4.2.3. Txikizkako merkataritza jarduera egiten duten enpresen proiektuak, jarduera nagusia ez izan arren, betiere baldintza hauek ere betetzen badituzte:

- a) 500 bizilagun baino gutxiagoko udalerrri batean egotea. Horretarako, kontuan hartzen dena ez dira kontzejuen populazio datuak, udalerrienak baizik.
- b) Proiektu berria kokatzen den udalerrian ez dira 3 saltegi baino gehiago egon behar funtzionamenduan eskaera aurkeztzen den egunean. Ondorio horietarako, saltegitzat hartzen dira deialdi honetan diruz lagungarritzat jotzen diren jarduera ekonomikoetako bat egiten duten negozioak.

c) Enpresa-proiektu berriaren merkataritza jarduerak udalerriko gainerako saltegiarena ez bezalakoak izan behar du, merkataritzak udalerrian duen eskaintzaren aniztasuna zabaltze aldera.

4.3. Saltegi berean jarduera ekonomiko bat baino gehiago eginez gero, diruz lagungarria den merkataritza jarduerari zuzenean loturiko inbertsioak bakarrik izanen dira diruz lagungarriak, eta, betiere, merkataritza jarduera hori izanen da saltegi horretako jarduera ekonomiko nagusia.

4.4. Inbertsioak enpresaren aktiboan sartu beharko dira, dirulaguntzaren xedeko saltegiaren bertan kokatu behar dira, salbu eta merkataritza ez-egonkorren proiektuen kasuan, eta diruz lagundutako jarduerarako erabiliko dira.

4.5. Diruz lagundutako aktibo finkoak lehendabiziko aldiz erabili behar dira, salbu eta saltegiak eskualdatzeko proiektuetarako aurreikusi dena, eta ezin zaizkie laga hirugarren pertsona fisikoei edo juridikoei. Halaber, ezin dira enpresa eskatzaileak fabrikatuak, eginak edo garatuak izan.

4.6. Dirulaguntzaren xede diren inbertsioak jarduketa diruz lagungarrien epearen barnean jarri behar dira abian, 12.1.c oinarrian aurreikusitako salbuespenarekin.

6. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1. Honako hau da gutxienez eskatzen den inbertsioa (BEZa kanpo):

Ver tabla completaVer tabla completa

PROIEKTU MOTA		ENPRESAREN TAMAINA			
		MIKROENPRESA	ENPRESA TXIKIA	ENPRESA ERTAINA	
1) Modernizazioa eta eraberritzea		10.000	27.000	105.000	Saltegi bakoitzeko
2) Berariazkoak	a) Enpresaren integrazio estrategikoa	5.000	17.000	-	Enpresa bakoitzeko
	b) Saltegiak eskualdatzea	5.000	17.000	-	Saltegi bakoitzeko
	c) Landa merkataritzako negozio eredua garatzea (CEIN SL)	2.000	2.000	-	
	d) Merkataritzako diagnostikoak	4.000	8.000	-	
	e) Inbertsioak Covid-19arengatik	500	500	500	
3) Merkataritzako ekintzailletza		5.000	17.000	-	Enpresa bakoitzeko
4) Merkataritza ez-egonkorra		1.500	1.500	-	
5) Garapen teknologikoa		2.000	2.000	2.000	

Eskaerak ez badu berdintzen garapen teknologikoko proiektuen klaseetarako edo Covid-19engatiko inbertsioetarako eskatzen den gutxieneko inbertsioaren zenbatekoa, inbertsio horiek metatzen ahal zaizkio beste edozein proiektu motatan eskatzen den inbertsioari.

2. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, ondotik zehazten diren portzentajeak aplikatu behar dira inbertsio diruz lagungarriaren gainean (BEZa kanpo), gehieneko zenbatekoa gainditu gabe:

Ver tabla completaVer tabla completa

PROIEKTU MOTA		DIRULAGUNTZA (%)	GEHIENEO ZENBATEKOA	
1) Modernizazioa eta eraberritzea		40	45.000	Saltegi bakoitzeko
2) Berariazkoak	a) Enpresaren integrazio estrategikoa	40	45.000	Enpresa bakoitzeko
	b) Saltegien eskualdaketa	45	45.000	Saltegi bakoitzeko
	c) Landa merkataritzako negozio eredia garatzea (CEIN SL)	50	8.000	
	d) Merkataritzako diagnostikoak	45	8.000	
	e) Inbertsioak Covid-19arengatik	60	5.000	
3) Merkataritzako ekintzailletza		40	45.000	
4) Merkataritza ez-egonkorra		40	10.000	Enpresa bakoitzeko
5) Garapen teknologikoa		60	12.000	

7. oinarria. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

1. Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

2. Eskaerak aurkezteko modua.

a) Pertsona juridikoen kasuan eta pertsona fisikoen edo juridikoen elkarleen kasuan edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 8.3 artikuluko kasuetako batean.

Eskaerak telematika bidez aurkeztuko dira nahitaez, Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atariaren tramiteen katalogoko fitxa erabiliz:

https://www.navarra.es/home_es/Temas/Empleo+y+Economia/Comercio+y+artesanía (hemendik aitzina, laguntzaren fitxa). Fitxa horretan, esteka bat izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako Erregistro Orokor Elektronikoa sartzeko.

Eskaera aurrez aurre aurkezten bada, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko eta baliabide telematikoen bidez aurkezteko. Ondorio horietarako, eskaeraren aurkezpen eguna zuzentzeko eguna dela ulertuko da.

b) Pertsona fisikoen kasuan.

Ahal dela, eskaerak modu telematikoa aurkeztuko dira, a) letran adierazitakoari jarraikiz, edo, hala ez bada, aurrez aurre Iruñeko Navarrería kaleko 39an dagoen Erregistro Bulegoan, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako beste erregistroetako edozein erabiliz.

3. Eskaerak laguntzaren fitxan ageri den berariazko inprimakia erabiliz egingen dira, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiarantz zuzenduta.

4. Saltegi bakoitzak edo merkataritza ez-egonkorreko enpresa bakoitzak eskaera bat aurkeztuko du.

5. Laguntzak eskatzeko behar diren agiriak.

Honako agiri hauek aurkeztu behar dira (eskaera telematikoa bada, dokumentu bereiztan eskaneatuak eta behar bezala identifikatuak):

5.1. Enpresa eskatzailearen gaineko dokumentazioa.

Eskabide ereduak honako adierazpen hauek ditu:

a) Erantzukizunpeko adierazpen bat, frogatzeko 4.1 oinarrian eskatutako baldintza orokorrak betetzen direla.

b) Minimis laguntzei eta jasotako beste dirulaguntza batzuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena, 13. oinarrikoa.

c) Erantzukizunpeko adierazpen bat, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 8.3 artikuluko kasuetako batean dauden eskatzaileek adierazi ahal izateko, hala badagokio, onartzen dutela beste portzentaje batzuk aplikatzea dirulaguntzaren ondoriozko konpromisoetan parte hartzeari begira, baldin eta portzentaje horiek Nafarroako Zerga Ogasuneko entitateen eroldan inskribatzeko egiaztagirian jasota daudenak ez bezalakoak badira.

d) Transferentzia bidez kobratzeko eskabidea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari zuzendua (Diruzaintza Atala), enpresa eskatzaileak lehenbizikoz kobratzen baditu laguntzak, edo abonatzeko kontua aldatu nahi izanez gero.

5.2. Nortasuna frogatzen duen dokumentazioa.

–Sozietateen kasuan: sozietatea eratzeko eskritura publikoaren eta horren aldaketaren kopia, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua.

–Sozietate irregularren edo zibilen kasuan, edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 8.3 artikuluko kasuetan: Nafarroako Zerga Ogasuneko Entitateen Zentsuan inskribatuta egotea frogatzen duen dokumentuaren kopia.

–Pertsona fisikoen kasuan: nortasun agiri nazionalaren kopia.

Ez da beharrezkoa agiri hori aurkeztea; izan ere, organo kudeatzaileak telematika bidez egiaztatuko du eskatzailearen NANA, salbu eta eskatzaileak eskabide orrian berariaz azaltzen badu uko egiten diola egiaztapen hori egiteari. Kasu horretan, NANaren kopia aurkeztu beharko du.

5.3. Jarduketa diruz lagungarri buruzko dokumentazioa.

a) Dirulaguntzaren xedeko proiektua azaltzen duen memoria tekniko eta ekonomikoa, gutxienez honako alderdi hauen gaineko informazio zehatza bilduko duena:

–Enpresaren aurrekariak, inbertsioak egitea gomendatzen duten arrazoiak eta proiektu gauzatzearekin lotu nahi diren helburuak.

–2020ko urriaren 1etik 2021eko irailaren 30era bitarte egindako jarduketan edo epe horretarako aurreikusitako azalpena.

–Proiektua gauzatzeko faseak, zenbat gauzatu den dirulaguntza-eskaera aurkezten denean, eta aurreikusitako egutegia.

–Egindako edo aurreikusitako inbertsioen zenbateko zehatzak eta horien finantzaketari buruzko informazioa.

–Inbertsioak abian jartzeko aurreikusitako eguna eta, hala badagokio, saltegia irekitzekoa.

–Saltegian egindako jarduera ekonomikoz guztien deskribapen zehatza, edo merkataritza ez-egonkorrean aritzen den enpresak egindakoena, EJZren zer epigrafetan dagoen alta emanda, jarduera horiek betez.

b) Merkataritzako ekintzailera proiektuen kasuan, aurreko atalean aipatutako memoriaren ordean, bideragarritasun planaren edo enpresa planaren kopia bat aurkeztu beharko da, behar bezala onetsia, osoa eta bukatua.

Plan horrek aurreko atalean aurreikusitako memoria egiteko eskatutako informazioa jasoko du, eta, gainera, honako alderdi hauen berri emanen du:

–Ekintzailearen lanbide kualifikazioaren eta egokitasunaren analisia.

–Merkatuaren eta lehiaren analisia, marketin plana eta ekonomia- eta finantza-plana.

–Enpresaren antolaketa, negozioaren definizioa eta merkaturatu beharreko produktuen definizioa.

–Proiektua gauzatzeko faseak, zenbat gauzatu den dirulaguntza-eskaera aurkezten denean, eta aurreikusitako egutegia.

Behar bezala kualifikatutako entitate, profesional edo aholkularitza enpresa batek prestatu beharko du plana, eta dirulaguntza eskatzen duen enpresak berak ezin izanen du egin, ezta prestatu ere. Plana nahitaez dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

c) Diruz lagunduko den aldian egindako nahiz aurreikusitako inbertsioen zerrenda baloratua eta zehatza; hori justifikatzeko, aurrekontuak erabiliko dira, edo gastuak zenbatesteko bide ematen duten proforma fakturak; ez dira inoiz onartuko eskatzailearen uste edo balorazioetan oinarritzen diren gastu zenbatespenak.

Inbertsio diruz lagungarriaren bolumena zehazteko, honako hau hartuko da kontuan: dirulaguntza eskatzeko berariazko inprimakiko informazioa, atal honetan aipatutako zerrenda eta dirulaguntzaren xedeko proiektuaren memoria ekonomikoa. Ondorio horietarako, ez da onartuko eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren eskatzaileak emandako beste edozein agiri.

d) Berariazko proiektuen kasuan, dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:

–Enpresa integratioko proiektuetan parte hartzeko proiektuak: Enpresa egituraren parte dela frogatzen duen dokumentazioa edo hartan integratzea eskatu izanarena.

–Toki entitateek edo beste Administrazio Publiko batzuek CEIN SLren laguntzaz sustatutako proiektuak azkartzeko programa: Kasu horretan, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du, eskaeraren inprimakian jaso dena, adierazteko programa horretan parte hartu duela.

–Saltegien eskualdaketa: Negozioa eskuratzen duena txikizkako jarduera horretan berean edo antzeko batean aritu ez bada 2020ko urriaren 1etik baino lehenagotik, behar diren agiriak aurkeztu beharko ditu egiaztatzeko analizatu egin direla eskuratu duen negozioa kudeatu eta zuzentzeko daukan egokitasuna, gaitasuna eta lanbide kualifikazioa. Azterlan edo analisi hori behar bezalako kualifikazioa duen entitate, profesional edo aholkularitza enpresa batek eginga beharko du, eta ezin du egin enpresa eskatzaileak berak.

e) Merkataritza ez-egonkorrean aritzen diren enpresek honako honi buruzko informazioa eman behar dute:

–Zer merkatu txikitan parte hartzen duten Nafarroako toki entitateetan eta, kasua bada, beste autonomia erkidego batzuetan, eta urtean eta hilean zenbat aldiz joaten diren haietara.

–Merkataritza ibiltariaren zer ibilbide egiten duten denda-ibilgailuetan, adierazita Nafarroako zer toki entitateetatik pasatzen diren eta, kasua bada, zer autonomia erkidegotatik, eta urtean eta hilean zenbat aldiz joaten diren haietara.

Bi kasuetan, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du, eskaeraren inprimakian horretarako jaso dena.

f) Gastu diruz lagungarria 30.000 eurotik gorakoa bada, obra gauzatzeko kostuaren kasuan (birgaitzeko obrak, egokitzekoak eta irudia berritzekoak), edo 12.000 eurotik gorakoa bada, aholkularitza edo laguntza enpresek ekipo-ondasunak hornitzeko edo zerbitzuak emateko kasuetan (aktibo finkoak erostea, garraio elementuak, zerbitzu teknikoak edo profesionalak kontratatzea), eskatzaileak frogatu beharko du hornitzailea efizientzia eta ekonomia irizpideei jarraituz hautatu duela, eta, horretarako, gutxienez hiru eskaintza aurkeztuko ditu eta hautatutakoa aukeratzeko arrazoiak emanen ditu eskaeraren inprimakiko “Hornitzailearen aukeraketaren justifikazioa” atalean.

Eskatzaileak ez dira beharturik egonen hiru eskaintzak aurkeztera, baldin eta dirulaguntzaren xedeko gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan behar adina entitate hornitzaile edo zerbitzu-emaille ez badaude edo dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada gastua. Edonola ere, alderdi horiek aipatu inprimakian frogatu beharko dira.

Eskaintza merkeena hautatzen ez bada, eta, laguntza kudeatzen duen organoaren ustez, justifikazioa nahikoa ez bada, eskaintza merkeenaren zenbatekoa baizik ez da diruz lagunduko.

5.4. Jarduketa baloratzeko dokumentazioa.

Diruz lagundu beharreko jarduketa baloratzearren 8. oinarrian ezarritako irizpideen arabera, oinarri horretan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, baina ezin izanen da baloratu dokumentazioa ez bada aurkezten eskaerak aurkezteko epearen barnean.

Balorazio irizpide hauek aplikatzeko, ez da inongo dokumentaziorik aurkeztu behar:

–8.2 oinarriko 1., 2., 3., eta 6. irizpideak.

–8.5 oinarriko irizpideak.

6. Eskaerak ez baditu finkatutako betebeharrak betetzen, edo osorik ez badago, eskatzaileari eskatuko zaio zuzendu dezala gehienez ere hamar egun balioduneko epean, zuzentzeko errekerimendua jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, eta adieraziko zaio ezen, eskaera zuzentzen ez badu, ondorioztatuko dela eskaerari uko egiten diola eta espedientea artxibatuzeko ebazpena emanen dela.

8. oinarria. Dirulaguntzak emateko irizpideak.

1. Laguntza hauek norgehiagokako prozeduraren bidez emanen dira. Hartara, aurkeztutako eskaerak konparatuko dira, haien artean lehentasuna ezartzearen jarduketa mota bakoitzeko, oinarri honetan ezarritako balorazio irizpideekin bat.

Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, balorazio handiena eskuratzen duten eskaerei 6. oinarrian ezarritako laguntza-intentsitatea aplikatuko zaie, jarduketa bakoitzerako aurrekontuan erabilgarri dagoen kreditua agortu arte. Kreditu erabilgarria gelditzen bada jarduketa bateko eskaera guztiei erantzun ondoan, gainerako jarduketan eskaerei erantzuteko erabiliko da, 2. oinarrian ezarritakoarekin bat.

Baimentzen den kreditua aski bada dirulaguntza lortzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, ez da beharrezkoa izanen eskaeren lehentasun zerrenda prestatzea.

Aurrekontuetan behar adina diru ez egoteagatik kontuan hartzen ez diren eskaerak ezetsizat joko dira.

Eskatzailearen bati ezin bazaio eman legokiokeen laguntza osoa, kreditu aski ez dagoelako, laguntzak emateko ebazpena baino lehen, 3 egun balioduneko epea emanen zaio adierazteko ea ados dagoen berarentzat aurreikusitako dirulaguntzarekin. Proposatutako dirulaguntzarekin ados daudela adierazten duten onuradunek dirulaguntza osagarri bat jasotzen ahalko dute, baldin eta aurrekontu-baliabide gehiago sortzen badira azkenean ordaintzen diren dirulaguntza guztien zenbatekoa txikiagoa izateagatik hasieran onartutakoena baino, edo onuradunen batek uko egiteagatik dirulaguntzari. Hauxe izanen litzateke dirulaguntza osagarri horiek emateko ordena: E, C, A (gainerako entitateak, Iruña), B eta D proiektu motak, mozte-espedientetik abiatuta.

2. Honako hauek dira eskaerak baloratzeko irizpideak modernizazio eta eraberritze proiektuetan, berriazko proiektuetan, merkataritzako ekintzailatza proiektuetan eta garapen teknologikoko proiektuetan:

1. irizpidea.–Saltegia dagoen toki entitatearen populazioa.

Biztanleen kopurua zehazteko, Nafarroako kontzejuetako populazio zifra ofizialak deklaratzeko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ematen dituen foru aginduak erabiliko dira, zehazki, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarra duena, eta, zifra hori oinarri hartuta, puntuazio hauek emanen dira:

SALTEGIA DAGOEN TOKI ENTITATEAREN POPULAZIOA	PUNTUAK
1.000 biztanle arteko toki entitateak	40
1.001-1.500 biztanleko toki entitateak	30
1.501-2.500 biztanleko toki entitateak	25
2.501-5.000 biztanleko toki entitateak	20
5.001-10.000 biztanleko toki entitateak	15
10.001-100.000 biztanleko toki entitateak	10
100.000 biztanle baino gehiagoko toki entitateak	0

2. irizpidea.–Enpresaren tamaina.

Enpresak eskaeran adierazitako tamaina hartuko da kontuan, eta puntuazio hau esleituko da:

Ver tabla completaVer tabla completa

ENPRESAREN TAMAINA	PUNTUAK
Mikroenpresa	30
Enpresa txikia	20
Enpresa ertaina	10

3. irizpidea.–Zer laguntza lortu den Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako merkataritzako enpresen lehiakortasuna hobetzeko deialdietan (2018., 2019. eta 2020. urteetan), honako puntuazio hau emanen da:

Ver tabla completaVer tabla completa

ALDI HORRETAN ESKURATUTAKO DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA	PUNTUAK
Ez zen dirulaguntzarik jaso	10
Guztira, 15.000 eurotik beherako dirulaguntzak jaso baditu	5
Guztira, 15.000 euroko edo gehiagoko dirulaguntzak jaso baditu	0

4. irizpidea.–Merkatarien elkarte bateko partaide izatea.

Eskatzaileak frogatzen badu Nafarroako merkatarien elkarte bateko bazkidea dela deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik, 5 puntu esleituko zaizkio.

Horretarako, elkarteak emandako ziurtagiria aurkeztuko du, non elkarteko bazkide gisa duen antzintasuna eta azkeneko urtean ordaindu dituen kuotak agertuko diren.

5. irizpidea.–"Merkataritza txikirako zerbitzuaren kalitatea" UNE 175001 kalitate arauaren ezarpena.

Eskatzaileak frogatzen badu arau horren ziurtagiria jaso duela deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik eta, gainera, indarrean dagoela, 3 puntu esleituko zaizkio.

Horretarako, ENACek (Akreditazio Erakunde Nazionala) akreditatutako enpresa baten ziurtagiria aurkeztuko da, hori frogatzen duena.

6. irizpidea.–Atxikipena Kontsumoko Arbitraje Sistemari.

Eskatzailea sistema horri atxikita badago eskaera aurkeztu aurretik, 2 puntu esleituko zaizkio.

Deialdiaren organo kudeatzaileak egiaztatuko du hori Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuan, baina, bakar-bakarrik, eskatzaileak hori adierazi badu eskaeraren inprimakian.

7. irizpidea.–Merkatariaren adina.

Eskaera aurkezten den egunean, enpresaburuak 35 urte bete ez baditu, 5 puntu esleituko zaizkio. Horretarako, kudeaketa organoak NANA egiaztatuko du telematikoki, salbu eta eskatzaileak horretarako baimena ukatzen badu berriaz eskaera orrian. Kasu horretan, NANaren kopia aurkeztu beharko du.

8. irizpidea.–35 urtetik beherako pertsonen kontratazio mugagabea.

Eskaera aurkezten den egunean, eskatzaileak 35 urtetik beherako langileak baldin baditu kontraturik kontratu mugagabearekin, 6 puntu esleituko zaizkio gehienez: 3 puntu lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko, eta puntu 1, berriz, lanaldi partzialeko kontratu mugagabe bakoitzeko.

2020ko urriaren 1etik eskaera aurkezten den egunera arte formalizatutako kontratu guztien kopia aurkeztuko da.

9. irizpidea.–Prestakuntza epezializatua.

Baloratuko da bai titularrak bai langileek txikizkako merkataritzaren sektorearekin zuzenean loturiko titulu arauturen bat, profesionaltasun ziurtagiriren bat edo gaitasun unitateren baten ziurtagiria izatea, betiere Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalako "Merkataritza eta Marketina" lanbide arloan badago.

Gainera, aipatutako lanbide arlokoa ez den profesionaltasun ziurtagiriren bat edo gaitasun unitateren batena izatea baloratuko da, betiere ziurtagiri horiek txikizkako merkataritza jarduerarekin zuzenean loturiko okupazioei eta lanpostuei eragiten badiete.

Irizpide honen balorazioa 8 puntukoa izanen da gehienez ere: 4 puntu graduko titulazioa daukan langile bakoitzeko, 3 puntu Lanbide Heziketako titulazioa daukan langile bakoitzeko, 2 puntu langile bakoitzeko profesionaltasun ziurtagirien kasuan, eta puntu bat langile bakoitzeko egiaztatutako

gaitasun unitateen kasuan.

Kasuan kasuko titulu ofizialen, akreditazioen edo ziurtagirien kopia aurkeztuko da.

10. irizpidea.–Genero berdintasunaren arloko prestakuntza berariazkoa eta berdintasun planak.

Enpresak berdintasun planak ezarri dituela edo berdintasunaren arloan prestakuntza berariazkoa egin duela frogatzen bada, 3 puntu esleituko dira.

Plan horiek ezarri direla edo prestakuntza berariazkoa egin dela frogatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da.

11. irizpidea.–Berariazko proiektu mota:

–Saltegien eskualdaketan, 6 puntu esleituko dira, baina eskualdatzen den saltegia kokatuta baldin badago gehienez ere bost saltegi dituen toki entitate batean (eskualdatzen dena barne), 10 puntu esleituko dira.

–Landa merkataritzako negozio eredua garatzen bada, CEIN SLk kudeaturik, 7 puntu esleituko dira.

–Saltegiak parte hartu bazuen 2018an eta 2019an Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialak egindako merkataritzako diagnostikoen programan eta/edo onuradun atera bazen 2019an Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak enpresen merkataritza arloko diagnostiko, plan eta azterketetarako emandako dirulaguntzen deialdian, 5 puntu esleituko dira.

–Covid-19ak eragindako inbertsioengatik, 7 puntu esleituko dira.

3. Aurreko ataleko irizpideak aplikatu ondoren, ondotik zehazten diren balorazio irizpideak ere aplikatuko zaizkie Iruñean kokatutako saltokien eskaerei, Iruñeko Merkataritzaren 2017-2021 Plan Estrategikoa oinarri hartuta:

1. irizpidea.–Saltegia kokatua dagoen auzoaren dentsitate komertziala zein den, behean azaltzen den puntuazioa emanen da. Puntuazio hori finkatu da auzoen dentsitate komertzialaren alderantzizko proportzioaren arabera:

Ver tabla completaVer tabla completa

AUZOA	PUNTUAK
Alde Zaharra	1
Zabalguneak	1
Iturrama	2
Donibane	2
Ermitagaña-Mendebaldea-Irunlarrea	2
Etxabakoitz	3
Arrotxapea	3

Sanduzelai	3
Azpilagaña	3
Arrosadia	4
Txantrea-Orvina	4
Mendillorri	4

2. irizpidea.–Saltokia kokatua dagoen auzoan izan den saltegi kopuruaren bilakaeraren arabera, behean azaltzen den puntuazioa emanen da. Puntuazio hori ezarri da epe horretan auzoan gertatutako saltegi kopuruaren bilakaeraren alderantzizko proportzioaren arabera:

[Ver tabla completa](#)[Ver tabla completa](#)

AUZOA	PUNTUAK
Azpilagaña	1
Zabalguneak	2
Iturrama	2
Etxabakoitz	2
Sanduzelai	2
Alde Zaharra	3
Donibane	3
Ermitagaña-Mendebaldea-Irunlarrea	4
Arrotxapea	4
Arrosadia	4
Txantrea-Orvina	4
Mendillorri	4

3. irizpidea.–Jarduketak egiten badira hiri garapen berritzat hartzen diren auzoetan kokatutako saltegieta, honako puntuazio hau aplikatuko da:

[Ver tabla completa](#)[Ver tabla completa](#)

AUZOA	PUNTUAK
-------	---------

Buztintxuri	8
Lezkairu	8
Erripagaña	8

4. Puntu berdinketa izanez gero, irizpide hauek aplikatuko dira bata bestearen atzetik:

a) Dirulaguntza aurkezteko unean inbertsio guztiak gauzatuak dituzten eskatzaileak, eta lehentasuna emanen zaie diruz lagungarria den inbertsiorik handiena dutenei.

b) 8.2 ataleko 3. irizpidearen arabera dirulaguntza txikiena jaso duten eskaerak.

c) Saltegia kokatzen den udalerriko populazioa; lehentasuna emanen zaie populazio txikiena dutenei.

5. Hauek dira merkataritza ez-egonkorraren proiektuen eskaerak baloratzeko irizpideak:

5.1. 2020an Nafarroako toki entitateetako merkatu txikietan aritu izana.

1. irizpidea.–Merkatu txikia egiten den toki entitateko populazioa.

[Ver tabla completa](#)[Ver tabla completa](#)

TOKI ENTITATEAK	PUNTUAK
%50ek 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte	10
%50ek 1.500 biztanle baino gutxiago dituzte	5
%50ek 2.000 biztanle baino gutxiago dituzte	3

2. irizpidea.–Hilean zenbat aldiz joaten den.

[Ver tabla completa](#)[Ver tabla completa](#)

HILEAN ZENBAT ALDIZ	PUNTUAK
7 egun baino gehiago	10
6 eta 7 artean	5
5 egun	3

3. irizpidea.–Urtean zenbat aldiz joaten den.

[Ver tabla completa](#)[Ver tabla completa](#)

URTEAN ZENBAT ALDIZ	PUNTUAK
9 hilabete baino gehiago	10
6 hilabete baino gehiago	5
3 hilabete baino gehiago	3

5.2. Merkataritza ibiltaria denda-ibilgailuetan, 2020an Nafarroako toki entitateetan egina.

1. irizpidea.–Ibilbidean dauden Nafarroako toki entitateetako populazioa.

Ver tabla completaVer tabla completa

TOKI ENTITATEAK	PUNTUAK
%50ek 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte	20
%50ek 1.500 biztanle baino gutxiago dituzte	10
%50ek 2.000 biztanle baino gutxiago dituzte	5

2. irizpidea.–Nafarroako zenbat toki entitateetatik pasa den merkataritzako ibilbide bakoitzean.

Ver tabla completaVer tabla completa

TOKI ENTITATEAK	PUNTUAK
5 baino gehiago	20
4 eta 5 artean	10
3 baino gutxiago	5

3. irizpidea.–Hilean zenbat aldiz egiten duen merkataritzako ibilbidea.

Ver tabla completaVer tabla completa

HILEAN ZENBAT ALDIZ	PUNTUAK
7 egun baino gehiago	20
6 eta 7 artean	10
5 egun	5

5.3. Merkatu txikietan eta denda-ibilgailuarekin aritzen diren saltzaile ibiltariak.

Kasu horretan, laguntza zer inbertsio motatarako eskatzen den, hari dagokion baremoa aplikatu beharko da.

5.4. 5. ataleko irizpideak aplikatzeko dokumentazioa.

Kontuan hartuko da eskatzaileak eskaeraren inprimakian dagoen erantzukizunpeko adierazpenean emandako informazioa, adierazitako irizpideei dagokien puntuazioa esleitzeko.

5.5. Puntu berdinketa izanez gero, irizpide hauek aplikatuko dira bata bestearen atzetik:

- a) Dirulaguntza aurkezteko unean inbertsio guztiak gauzatuak dituzten eskatzaileak, eta lehentasuna emanen zaie diruz lagungarria den inbertsiorik handiena dutenei.
- b) Nafarroako zenbat toki entitatetan jarduten den merkataritza ibiltarian diruz lagun daitekeen aldiari; lehentasuna emanen zaie kopuru handiena dutenei.
- c) Inbertsio diruz lagungarrien bolumena; zenbateko handiena dutenak lehenetsiko dira.

9. oinarria. Laguntzak emateko prozedura.

1. Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuak, laguntzen organo kudeatzailea baita, aurreko oinarrian ezarritako irizpideei jarraituz ebaluatuko ditu eskaerak, kontuan izanik zer proiektu mota den, eta organo eskudunari ebazpen proposamena igorriko dio, non adieraziko baita onuradunek dirulaguntza lortzeko betebeharrak guztiak betetzen dituztela.

2. Dirulaguntzak emateari buruz ebazteko eskumena Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusiari dagokio.

Ebazpenean honako hauek jasoko dira gutxienez:

- a) Onuradunen zerrenda jarduketarako bakoitzeko, 8. oinarriaren arabera lortutako puntuazioaren hurrenkeran, hala badagokio, eta laguntzen zenbatekoa.
- b) Ezetsi beharreko eskaeren zerrenda, arrazoiak emanik. Haien artean, aurrekontuko baliabideen mugengatik baztertu direnak ere jasoko dira.

Ebazpena gehienez ere hiru hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita.

Ezarritako gehieneko epea bukatzen bada berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe, eskaerak administrazio isiltasunez ezetsi direla ulertu ahal izanen da. Hala ere, organo eskuduna behartua dago laguntzak eman edo ukatzeko berariazko ebazpena eman eta jakinaraztera, oinarri hauetan xedatutakoari jarraikiz.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenen aurka, berariazkoak izan edo presuntziozkoak, enpresa eskatzaileek zilegi izanen dute gora jotzeko errekurtsioa jartzea, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari zuzendua, administrazio prozedura erkideari buruzko legerian xedatutakoari jarraikiz.

3. Ez da 300 eurotik beherako dirulaguntzarik emanen enpresa bakoitzeko.

10. oinarria. Inbertsioen justifikazioa.

1. Justifikazioa aurkezteko epea.

Edozein unetan aurkeztuko da egindako jarduketan justifikazioa, dirulaguntza ematen duen ebazpena jakinarazi ondoren, eta, beranduenez, 2021eko urriaren 13an, egun hori barne.

2. Justifikazioa aurkezteko modua.

Justifikazioa 7.2 oinarrian aurreikusitako moduan aurkeztuko da, laguntzaren fitxan eskura daitekeen justifikaziorako berariazko inprimakia erabiliz, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiarantz zuzenduta.

Modu telematikoan aurkeztuz gero, laguntzaren fitxa erabiliko da; fitxa horretan esteka bat izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren dirulaguntzen justifikaziorako erregistrora joateko.

3. Egindako inbertsioak justifikatzeko dokumentazioa.

Agiri hauek aurkeztu beharko dira, eta, bide telematikoak erabiliz gero, eskaneatuta, bereizita eta behar bezala identifikatuta egonen dira:

a) Azken memoria zehatza, egindako jarduketa guztiak eta proiektuaren exekuzioaren azken kostua xehetasunez deskribatzen dituen, bai eta hasieran aurreikusitako proiektuan izandako desbideratzeak ere, halakorik bada.

b) Aurkezten diren fakturen zerrenda zehatza eta sailkatua, haiek diruz lagundutako kontzeptuen arabera elkartuta eta dataren arabera ordenatu eta zenbakituta, hornitzailea identifikatuta eta IFK zenbakia, fakturaren zenbakia, igorpen eguna, BEZik gabeko zenbatekoa, guztira ordaindutakoa eta noiz eta nola ordaindu den adierazita, laguntzaren fitxan eskuragarri dagoen ereduarekin bat.

c) Egindako inbertsioei dagozkien fakturen kopia; fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan ezarritakoaren arabekoak izanen dira fakturak, eta, betiere, dirulaguntzaren onuradunaren izenean jaulki beharko dira. Ez da beharrezkoa eskaerarekin batera erantsitako fakturak aurkeztea.

50 eurotik beherako fakturarik ez da onartuko (BEZa kenduta).

Saltegiaren eskualdaketa kasuan, fakturatutako kontzeptu guztiak banan-banan jaso beharko dira fakturan (merkataritza funtsa, instalazioak, altzariak, izakinak, etab.), eta, horrekin batera, peritu baten edo tasazio enpresa baten txostena erantsi beharko da, horren frogagarri.

d) Bankuko egiaztagiria, fakturak ordaindu direla frogatzen dutenak.

Ordainketa onuradunak eginen du, banku transferentzia bidez, errezipoen zordunketa bidez edo enpresaren kreditu edo zordunketa txartela erabiliz. Ordainketaren egiaztagiriaz hartuko da adierazten duena ordainketa finantza entitate baten bidez egin dela eta enpresaren kontuan kargatu dela. Ez da onartuko eskudirutan egindako ordainketarik edo hartze-agiririk.

Ordainagiri bakoitzarekin batera, dagokion faktura aurkeztuko da.

e) Adierazpen bat, dirulaguntzaren xedeko jardueren finantzaketari buruzkoa: adierazi behar dira, dirulaguntza honetaz gain, jarduketak finantzatu dituzten beste funts batzuen zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa (funts berekiak, bestelako baliabideak edo bestelako dirulaguntzak). Aitorpen hori justifikazio inprimakian berean eginen da.

f) Jarduketak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso duela iragartzeko betebeharra bete dela frogatzeko argazkiak edo agiriak, 12.1.h oinarrian ezarritakoarekin bat.

g) Egindako jarduketaren argazkiak:

–Saltegiak birgaitu eta egokitzeko eta haien irudia berritzeko obren kasuan, saltegiaren kanpoko eta barreneko argazkiak aurkeztu behar dira, lanak egin aurretik eta ondotik egoera zein den egiaztatu ahal izateko.

–Ekipamendu komertziala edo digitala erosiz gero, diruz lagundutako aktibo finkoen argazkiak.

–Merkataritza ez-egonkorrari lotutako proiektuen kasuan, denda-ibilgailuaren argazkiak, edo erositako ekipamenduarenak.

11. oinarria. Dirulaguntzaren ordainketa.

Frogagiriak aztertuta, Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuak ordainketa egiteko ebazpenaren proposamena igorriko dio Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiarri, eta txosten bat gehituko zaio, frogatzen duena entitate onuradunak betetzen dituela dirulaguntza kobratzeko eskubidea ematen duten betebeharrak guztiak.

Laguntza ordaintzeko ebazpena 2021eko abenduaren 31 baino lehenago emanen da.

12. oinarria. Onuradunen betebeharrak eta horiek ez betetzearen ondorioak.

1. Dirulaguntza lortzen duten enpresek, pertsona fisikoak izan ezik, betebeharrak izan izanen dituzte:

a) Dirulaguntzaren esleipena jakinarazi eta hilabeteko epean, telematikoki aurkeztea dirulaguntzen onuradunen gardentasun betebeharrari buruzko adierazpena, irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuan arautua, laguntzen fitxan eskura dagoen ereduaren arabera.

b) Diruz laguntzen diren inbertsioak oinarri hauetan ezarritako epeetan egin eta justifikatzea.

c) Dirulaguntzaren xedeko inbertsioak martxan jartzea edo, hala badagokio, saltegia jendearentzat irekitzea 2021eko abenduaren 31 baino lehen, eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuari irekiera-egunaren berri ematea. Merkataritzako ekintzailetzaren proiektuen kasuan, EJZn beranduenez 2021eko abenduaren 31n, egun hori barne, alta emanda daudela dioen agiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

d) Laguntzen organo kudeatzaileari jakinaraztea, laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik hamar egun baliouduneko epean, edo 2021eko abuztuaren 16a baino lehen (egun hori barne), uko egiten zaiola emandako dirulaguntzari, baldin jarduketa diruz lagungarriren bat edo guztiak ez badira ezarritako exekuzioaldian egin behar.

Jakinarazpen hori kontuan hartuko da oinarri honen 2. zenbakian ezarritako murrizketak aplikatzeko orduan.

e) Baimena eskatzea diruz lagundutako inbertsioan funtsezko aldaketak egiteko. Eskaera behar bezala justifikaturik egonen da, eta aldaketak egin baino lehen aurkeztu beharko da.

f) Laguntzak kudeatzen dituen organoari jakinaraztea, jakin bezain laster, baldin eta beste diru-sarrera, dirulaguntza edo babesletza bat lortzen bada deialdi honetan diruz lagundutako jarduketa bererako.

g) Dirulaguntzaren xede diren ondasunak gutxienez ere 3 urtez edukitzea etenik gabe enpresak Nafarroan duen jarduerari atxikita, inbertsioak abian jartzen direnetik hasita, edo ondasunaren balio-bizitzak iraun bitartean, hori laburragoa bada. Ondasunak erregistro publiko batean inskribatzen ahal badira, epe hori gutxienez zazpi urtekoa izanen da. Inbertsioak abian jartzen direnetik hasiko da kontatzen epe hori.

Gerora sortutako arrazoi bat dela kausa, dirulaguntza jasotzen duen enpresak dirulaguntzaren xedeko saltegi merkataritza jarduera utzi behar baldin badu, xedearen gaineko betebeharra beteta dagoela ulertuko da, eta, beraz, ez da laguntza itzuli beharko baldin eta bermatzen baldin bada saltegi horretan txikizkako beste merkataritza jarduera batek jarraituko duela (deialdian diruz lagungarriak izateko modukoak hartzen direnetako bat) eta han kokaturik jarraitzen badu atal honetan ezarritakoaren arabera dagokion epea bukatu arte. Berdin jokatuko da enpresa onuradunak uzten badu merkataritza ibiltaria.

Hori gertatuz gero, enpresa onuradunak egoera horren berri eman beharko du edozein erregistro ofizial erabiliz, nahikoa aurrerapenarekin eman ere. Halako kasuetan, dirulaguntza hartu duen enpresak zituen betebeharrak guztietan subrogatuko da saltegi horretan merkataritza-jarduera bere gain hartzen duen enpresa edo salmenta ibiltarian jarraitzen duena.

Dirulaguntza jaso bada garapen teknologikoko proiektu batengatik (GTP), diruz lagundu diren merkataritza elektronikoko plataformak eta IKT soluzioak gutxienez 3 urtez mantendu behar dira jardunean, inbertsioak martxan jartzen direnetik kontatzen hasita.

h) Dirulaguntzaren publizitate egokia ematea, ondotik zehazten den moduan eta 3 urtez, dirulaguntza ematen duen ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera edo, hala badagokio, inbertsioak abian jartzen direnetik aurrera:

–Kartel bat jarriko da saltegi argi ikusteko moduko toki batean, laguntzaren fitxan eskura dagoen ereduaren arabera.

–Gainera, garapen teknologikoko proiektuak ezartzeko inbertsioen kasuan, enpresaren web orrian honako testu hau txertatuko da: “Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa”.

–Denda-ibilgailua erosi edo egokitze inbertsioen kasuan, izen komertziala edo sozietate izena izanen dute denda-ibilgailuek, baita Nafarroako merkataritzaren marka ere; horren erabilera eskatzeko, laguntzaren fitxan horretarako dagoen esteka erabiliko da.

i) Ez da erabiliko emakumeak diskriminatzen duen irudirik jarduketetan, publizitate euskarrietan eta diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko materialetan; emakumeen eta gizonen berdintasuna eta rolen pluraltasuna sustatuko da, eta hizkera inklusiboa erabiliko da. Halaber, hizkera sexista erabiltzea saihestuko da diruz lagundutako jardueraren gainean prestatzen den dokumentazio guztian.

j) Enpresen deslokalizazio kasuetatik batean ere ez erortzea, Enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzko abenduaren 16an 18/2020 Foru Legearen 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

k) Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 9. artikuluan ezarritako betebeharrak orokorrak betetzea.

2. Oinarri arautzaile hauetan edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legean ezarritako betebeharren bat bete ezean, onartutako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzen ahalko da edo, kasua bada, diru hori itzuli egin beharko da, foru lege horren 35. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Halaber, aurreko betebeharrak bat hein batean betetzen ez bada, ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa berriro ere zehazten ahalko da, proportzionaltasun printzipioari jarraikiz, edo, zein den kasua, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

Zehazki:

a) 12.1.a) oinarrian ezarritako gardentasun betebeharrak duten onuradunek 59/2013 Foru Dekretuaren 4.1 artikuluan eskatutako informazioa aurkezteko betebeharrari dagokionez:

–Onuradunak informazioa emateko betebeharrak hori betetzen ez badu, ez zaio emandako dirulaguntza ordainduko, eta, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu duela deklaratu da.

–Informazioa epeaz kanpo aurkezten badu, eta, betiere, 2021eko urriaren 13ra arte aurkezten badu (egun hori barne), ordaindu beharreko dirulaguntza %10 murriztuko da, eta, aurkeztu ezean, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu duela deklaratu da.

b) Justifikazio agiriak 10. oinarrian ezarritako epea iraganda baina 2021eko urriaren 31 baino lehenago aurkezten badira, %10 murriztuko da ordaindu beharreko dirulaguntza. Egun horren ondotik aurkezten badira, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu dela deklaratu da.

c) Diruz lagundutako jarduketak prezio merkeagoan egiten badira (ezarritako epean gauzatu, fakturatu eta ordainduta), murrizketa hauek aplikatu dira:

–Diruz lagundutako jarduketaren %50etik %75era bitarteko prezioan egiten bada, azken dirulaguntza %50 murriztuko da, justifikatutako inbertsioaren arabera.

–Diruz lagundutako jarduketaren %50etik beherako prezioan egiten bada, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu dela deklaratu da.

Dirulaguntzaren xedeko jarduketaren bat egiten ez dela jakinarazteko komunikazioa epearen barruan aurkezten bada, oinarri arautzaile honen 1.d) atalean adierazi bezala, jarduketa hori ez da kontuan hartuko exekuzio maila zehaztearen ondorioetarako.

Era berean, justifikatzen den inbertsio diruz lagungarria ezin da baxuagoa izan 6.1 oinarrian ezarritako gutxienezko inbertsioa baino. Izan ere, baxuagoa bada, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu dela deklaratu da.

d) Oinarri honen 1. zenbakiko g) letran ezarritako epeak betetzen ez badira, zenbat denbora falta den betetzeko, horren araberrako zuzeneko proportzioan zehaztuko da itzuli beharreko zenbatekoa.

e) Errespetatzen ez bada inbertsioak abian jartzeko edo jendearentzat irekitzeko ezarri den data (2021ko abenduaren 31), oinarri honetako 1. zenbakiko c) letran ezarri dena, edo, merkataritzako ekintzaitza proiektuen kasuan, EJZ aurkezten ez bada egun horretarako, jasotako diru kopuru guztiak itzuli beharko dira, behar diren berandutze-interesekin batera.

13. oinarria. Dirulaguntzaren bateragarritasuna eta de minimis laguntzen izaera.

1. Dirulaguntza hauek bateraezinak dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, beste administrazio publiko batzuek, beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuek edo partikularrek, Espainiakoek nahiz atzerrikoek, jarduketa berretarako emandako beste laguntza batzuekin.

2. Deialdi honetako dirulaguntzak “minimis” laguntzak dira, Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera. Erregelamendu horren xedea da Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua “minimis” laguntzei aplikatzeko modua zehaztea (L 352. Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, 2013ko abenduaren 24koa).

Erregelamendu horrekin bat, enpresa bakar bati hiru zerga ekitaldiko edozein alditan emandako “minimis” laguntza guztien batura ezin da 200.000 eurotik gorakoa izan. Aipatu erregelamenduaren 2.2 artikuluan ezarrita dago enpresa bakarraren definizioa.

Horretarako, interesdunek kasuan kasuko zerga ekitaldian eta aurreko bi zerga ekitaldietan hartutako bestelako “minimis” laguntzak aitortu beharko dituzte eskaera egiteko inprimakian.

14. oinarria. Emandako dirulaguntzen publizitatea.

Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuak jendaurrean jarriko ditu emandako dirulaguntzak Ogasuneko Ministerioaren Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez (<http://www.pap.minhfp.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>), honako hauek adierazita: deialdia, laguntza zein aurrekontu kredituri egotzi zaion, onuradunak eta emandako diru kopurua.

Halaber, laguntzaren fitxan argitaratuko dira deialdi honen emaitzak.

15. oinarria. Oinarri arautzaile hauen aurkako errekurtsua.

Oinarri arautzaile hauen aurka gora jotzeko errekurtsua jar dezakete interesdunek, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iragarkiaren kodea: F2103238